

EAE-KO AURREKONTUAK. Jaurlaritzaren ustez, Aznarrek «desegonkortasuna» eragin nahi du

Jaurlaritzak dio PPK diseinatutako estrategiak «porrot» egin duela

Zenarruzabeitiaren arabera, Auzitegi Konstituzionalaren ebazpena «berandu iritsi da»

Edurne Begiristain | GASTEIZ

Auzitegi Konstituzionalak 2002ko aurrekontuei buruz hartutako epaiaren balorazio politikoa egin zuen atzo Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak. Balorazio politikoa, aurrekontuak legez kanpoko zat jotzen dituen ebazpenaren edukia oraindik ez duelako ezagutzen. Ebazpena «berandu» heldu dela esan zuen, 2002. urteko dirua jada gastatu delako eta aurtengo kontu publikoak onartu berri direlako. «2002ko aurrekontuak jada iragan dira», esan zuen behin baino gehiagotan Zenarruzabeitiak.

Ironia puntu bat ere erabili zuen Auzitegi Konstituzionalaren erabakia eta aurtengo aurrekontuekin gertatutakoa parekatzeko: «Jaime Mayor Oreja bezala, Jimenez de Parga ere berandu iritsi da».

Kazetariez gainezka zegoen Eusko Legebiltzarreko prentsa aretoa, bertan egin baitzuten adierazpenok Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak. Zenarruzabeitia ziur agertu zen PPKko gobernuak Eusko Jaurlaritzaren kontrako «estrategia» diseinatu zuela, Auzitegi Konstituzionalaren ebazpena aurtengo aurrekontuen eztabaida garaian kaleratu zedin. Jaime Mayor Oreja PPKko legebiltzar taldeko presidentea estrategia hori «zapuztu» zuela iritzi zion, aurrekontuen eztabaidara berandu heldu baitzen, kontuak onartzeko bidea emanez.

«Zinismo politikoa» izatea egotzi zion Jose Maria Aznar presidenteari, aurrekontu legeri helegitea jartzeagatik. Helegite horren xedea autogobernuari «trabak» jartzea izan zela iritzi zion Zenarruzabeitiak:

ESANAK

I. ZENARRUZABEITIA
(Jaurlaritzako lehendakariordea)

«Jaime Mayor Orejari gertatu zitzaion bezala, Jimenez de Parga ere berandu iritsi da oraingoan»

CARLOS ITURGAITZ
(EAEko PPKo presidentea)

«Aurtengo kontuei helegitea jartzea aztertuko dute PPKo zerbitzu juridikoek»

RODOLFO ARES
(PSE-EEko legebiltzarkidea)

«Jaurlaritzak onartu beharko luke hanka sartu duela, eta atzera jo beharko luke»

«Euskadin desegonkortasuna ezartzeko eta politikoki zigortzeko helburua zuen», azpimarratu zuen.

Helegiteak arrazoi juridikorik ez duela iritzi dio

Jose Maria Aznarren gobernuak iazko aurrekontuei jarritako helegitea «erabat politikoa» izan zela esan zuen Zenarruzabeitiak, eta «inolako oinarri juridikorik» ez zuela izan gaineratu zuen. Izan ere, azaldu zuenez, iaz onartutako aurrekontu legeraren ondorioz, «Eusko Jaurlaritzan ez da arazorik izan barne kudeaketarekin, ez eta herritarrekiko harremanekin ere».

Bestalde, Zenarruzabeitiak



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordea, atzo, azalpenak ematen.

Auzitegi Konstituzionalaren epaia ezagutarazteko modua kritikatu zuen, hedabideen bitartez filtratu baita. Horretaz gainera, nabarmendu zuen ebazpena «izugarri azkar» kaleratu dela, helegitea aurkeztu eta erabakia bost-bederatzi urteren buruan kaleratu ohi baita.

Halaber, Auzitegi Konstituzionalak «euskal erakundeei dien errespetu falta» salatu zuen lehendakariordeak, baina jarrera hori ez dela berria esan zuen. Espainiako Gobernuak aurtengo aurrekontuei helegitea jartzeko aukeraz galdetuta, Zenarruzabeitiak honako galderarekin erantzun zuen: «Zer-

gatik? Mayor Oreja berandutu zelako?».

Erantzukizun politikoak eskatu dituzte PPK eta PSE-EEK

Herenegun egin bezala, PPK eta PSE-EEK erantzukizun politikoak eskatu zituzten atzo Eusko Jaurlaritzari. PPK aurtengo aurrekontuei helegitea aurkezteko aukera aztertuko duela esan zuen Carlos Iturgaitz popularrak, «Jaurlaritzak eskualdatu gabeko eskumene-tan dirua gastatu duelako». Halaber, Zenarruzabeitiaren dimisioa eskatu zuen Iturgaitzek. PSE-EEko Rodolfo Aresen erantzukizun politikoa eskatu zion Jaurlaritzari.

FORU ALDUNDIA

Roman Sudupek Gipuzkoako aurrekontu proiektua aurkeztu du

Erredakzioa | DONOSTIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak atzo aurkeztu zituen 2003rako Gipuzkoako proiektuak. Roman Sudupe Gipuzkoako ahalgubehar nagusiak eman zuen atzo prentsaurrekoa, Donostian, egitasmoa aurkezteko, eta aurrekontuak aurrera ateratzeko PSE-EEekin hizketan ari direla esan zuen. Iaz ere, PSE-EEren botoei esker lortu zen aurrekontuak aurrera ateratea. Batasunarekin ez zen bildu, «indarkeria gaitzesten ez zuelako», eta PP «bera geratu zen el-karrizketetatik kanpo», Sudupek esan zuenez. Aurten ere, ez da bi alderdi horiekin bilduko.

PSE-EEekin abendutik ari dira hizketan aurrekontuak aurrera ateratzeko. Sudupe PSE-EEekin «elkar ulertu eta akordioa lortzearen» alde agertu zen, baina onartu zuen akordioa zaila izango dela: batetik, PSE-EEK udalen finantzaketarako diru gehiago eskatzen duelako eta iazko diru kopuru berdintsua dagoelako; eta, bestetik, maiatzean dauden hauteskundeak egungo gobernuaren bertan behera utziko dutelako.

Aurkeztutako aurrekontua 560 milioi eurokoa da. Proposatzen den aurrekontuan diru gehiago joango da lan hidraulikoe-tara (%30,01 gehiago) eta zerbitzu sozialetara (%6,1 gehiago).

Gipuzkoako Foru Aldundiko PPKo ordezkari Jose Luis Arruek esan zuen EAJ-EAK PSE-EEekin aurrekontuak hitzartuak dituztela, beraien ustez.

Andoaingo Udala

BASTERO KULTURGUNEKO KAFETEGIA
EMAKIDA BIDEZ ZEHARKA KUDEATZEKO
LEHIAKETA PUBLIKOAREN DEIALDIA.

Kontratuaren xedea: Andoaingo Bastero Udala Kulturaguneko kafetegia ireki eta eskaintzea.

Lizitazioaren oinarriko kanona: 8.640 euro lehen urtean.

Dokumentazioa eta informazioa non eskura daitekeen: Andoaingo Udaleko Hezkuntza eta Kultura lan sailaren, astelehenean ostiralerara, bulego orduetan, 10:00etatik 13:00etara bitartean.

Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2003ko otsailaren 10ean, Andoaingo Udaleko Bulego Orokorretan, astelehenean ostiralerara, 9:00etatik 13:30era.

Andoain, 2003ko urtarrilaren 16an
ALKATEA, Fdo. José Antonio Barandiaran Ezama

Osakidetza
Servicio vasco de salud

EPE

OSKIDETZA
SERVICIO VASCO DE SALUD

2002ko ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

Osakidetza Enplegu Publikorako Eskaintzari dagozkion **euskerako ahozko probak** urtarrilaren 31tik aurrera egingo dira.

Proba horietan parte hartuko dute hautaketa-prozesuko ariketak gainditu dituztenek bakarrik, beti ere aurretik euskerako ahozko probarako eskabidea egin badute.

Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu 2002ko abenduaren 16ko deialdian euskerako ahozko proba egiteko aukera izan zutenek.

ORDUTEGIA: 9:00 – 15:00

LEKUA: Musika Udala Eskola – Hedegile (Correría) kalea, 108-Vitoria-Gasteiz

Geroago ohiko komunikabideetan plazaratuko da nola banatuko diren izangaiak abizenen arabera zenbait txandatan.

GURUTZE AUTOAK S.L.

KIA-ren banatzailea

ROVER eta LAND ROVER BANATZAILEA

LAND ROVER DISCOVERY Berria

Benta Alde Industrialdea

© 943 654025 - Faxes: 943 652653 - 20270 ANOETA (Gipuzkoa)